

Donostiarren % 84k uste du klima-aldaketa oso arazo larria dela

Cristina Enea fundazioak egindako azterlan batek xeheki aztertzen ditu herritarrek fenomeno global horri buruz eta horrek hirian dituen ondorioei buruz dituzten pertzepzioak, emozioak eta balorazioak

Donostiako biztanleen % 84,4k uste du klima-aldaketa arazo larria dela, eta lautik batek arriskuarekin, kezkaarekin eta etorkizunera begira ondorio larriak ekarriko dituen arazo batekin lotzen du. Cristina Enea fundazioak egin eta asteazken honetan udaletxean aurkeztu duen *Donostiarrek klima-aldaketaren inguruan duten pertzepzio sozialaren inguruko ikerketak* jasotzen dituen datuetako batzuk dira horiek.

Ikerketa horren xedea da donostiarrek klima-aldaketaren inguruan dituzten pertzepzioak aztertzea, inkesta-prozesu baten bidez. Azterlana 2025eko urtarrilaren 27tik otsailaren 14ra bitartean egin zen, telefonoz, Gipuzkoako hiriburuan finkatutako 18 urteko edo gehiagoko 400 pertsonak osatutako lagin bat oinarritzat hartuta.

Ondorio nagusiak

Inkestatutako pertsonen ia erdiek berez lotzen dute klima-aldaketa hiru gai nagusirekin:

- % 25,3k dio klima-aldaketari buruz hitz egiten entzuten duenean burura datorkion lehen gauza dela hori errealitate bat, arrisku bat, kezka bat eta etorkizunera begira ondorio larriak ekarriko dituen arazo bat dela.
- % 13k klima-aldaketa eguraldi-aldaketarekin, muturreko tenperaturekin, eguraldi eroarekin eta urtarorik ez izatearekin lotzen du.
- % 10,3k klima-aldaketa zuzenean lotzen du kutsadurarekin (ibilgailuak, itsasoa, airea...).

Azterlanak berresten duenez, donostiarrek garrantzi handiko arazotzat daukate klima-aldaketa: % 84,4k oso larritzat dauka, Gipuzkoako eta EAEko zifren gainetik (% 78), eta % 2k soilik uste du garrantzi gutxiko kontua dela. Pertzepzio horrekin batera, fenomenoarekin lotutako emozioek nabarmen egin dute gora 2018tik: % 83,8 oso edo nahiko kezkatuta dago, % 73,3k ezintasuna sentitzen du, % 71,3k haserrea, eta erdiek baino gehiagok (% 51,8) beldurra sentitzen dute ondorioetan pentsatzean.

Aldi berean, informazio aldetik aurrerapen nabarmena ikusten da: herritarren bi herenek diote informazio asko edo dezente dutela klima-aldaketari, haren kausei eta ondorioei buruz, 2018ko datuekin alderatuta (urte hartan ezagutza

Prentsa oharra

Nota de prensa

falta zen nagusi). Arrazoiei dagokienez, % 68,8k gizakien jarduerari egozten dio nagusiki klima-aldaketa; ehuneko hori Gipuzkoan erregistratutakoaren antzekoa da, eta EAE osoan erregistratutakoa baino handiagoa. Horrek erakusten du herritarrak gero eta kontzienteago direla gizakiak erronka global honetan duen erantzukizunaz, eta sentsibilizatuago daudela tokiko eta etorkizuneko inpaktuekin.

Iñigo García Ingurumeneko zinegotziak emaitza horien garrantzia azpimarratu du: «Herritarrak argi eta garbi esaten ari zaizkigu klima-aldaketa benetako eta gertuko kezka dela. Gure betebeharra da asmo handiko politika eraginkorrekin erantzutea, Donostiako erresilientzia indartzeko eta pertsonak ekintza klimatikoaren erdigunean kokatzeko. Azterlan honek oinarri sendoa eskaintzen digu norabide horretan aurrera egiten jarraitzeko eta gizartearen eskaerekin eta erronka globalekin lerrokatutako udal-estrategia bat finkatzeko».

Azterlanak eduki tematikoa eta analitikoa duten sei ardatz nagusi landu ditu:

1. Klima-aldaketari buruzko pertzepzio eta emozio orokorrak.
2. Klima-aldaketarekin lotutako hainbat gairi buruzko informazioa.
3. Klima-aldaketaren eragileak.
4. Ondorioak eta egoera problematikoak Donostian, eta horiei lotutako afekzioak.
5. Donostiarrek klima-aldaketari aurre egiteko gaur egun hainbat esparrutan egiten dituzten ekintza pertsonalak, baita etorkizunean egiteko prest egongo liratekeen ekintza motak ere.
6. Donostiako Udalak klima-aldaketa hainbat eremutan jorratzeko ekintzak egitearekin dagoen adostasun-maila.

Txostenak —eskuragarri dago Cristina Enea fundazioaren webgunean (www.cristinaenea.eus)— informazio zehatza ematen du klima-aldaketaren ondorioei eta eraginei buruz, herritarrak egiten ari diren ekintza pertsonalei buruz eta horiek ezartzea zailtzen duten oztopoei buruz, bai eta udal-politiken balorazioari buruz ere. Donostiarrek, oro har, ontzat jotzen dute Udalak klima-aldaketaren aurkako neurriak bultzatzea, betiere neurri horiek modu orekatuan eta gehiegizko murrizketarik sortu gabe planteatzen badira.